

Identifikazio-gakoa idazti	PD	CC
----------------------------	----	----

BOTANIKAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIEN ZERRENDA SORTZEKO DEIALDIA

2015/01/26

Denbora: 12:50era arte

Bigarren ariketa

Mehatxatutako Espezieen EAeko Katalogoan —“Desagertzeko arriskuan” kategorian— sartuta dagoen espezie bat *ex situ* kontserbatzeko programa aurrera eraman nahi da Olarizuko lorategi botanikoan. Landare belarkara bizikorra da, iberiar endemismoa, Euskal Autonomia Erkidegoan 3 populazio-gune ezagun besterik ez dituen, kasu guztietan hedadura txikiko eta ale gutxiko koloniek osatuak. Gauza jakina da espezie horrek ez duela modu begetatiboan ugaltzeko ahalmenik. Aldiz, hazi ugari ematen ditu, eta jokabide ortodoxoa du, kontserbazioari dagokionez. Bibliografiaren arabera, maiatzean, ekainean eta uztailean loratzen da, eta irailetik aurrera ematen ditu fruituak.

Garatu proiektuaren helburuak, metodologia eta kronograma, kontu praktiko aipagarrienak bereziki azpimarratuz.